


Zubiak, torretxeak eta pelotariak

AULESTI. Terrenoz Lea-Artibaiko herri handienetakoa da; biztanleak, oster, gitxi ditu. Barrualdeko udalerri ondo gozau leiteke mendi inguruneaz eta sasoi bateko eraikuntza lan txukunez



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Astaldi gune parebakoa da Aulestiko Antapara parkea. Hondartza itxurako urtegia sortu dabe bertan.



NON ZER

AULESTI

Biztanleak: 662 inguru

Euskaldunak: %99

Zelan ailegau

Bilbotik Berrizera doan autopistea jarraitu. Gero Markinara arteko BI-633 errepidea jarraitu. Han, BI-3448 bidetik joan Aulestira.

Ondarea

Herri erdian, XV. mendeko San Juan Bautista eliza. Aulesti torrea, udalerriari izena emon eutsana. Ibañez de Aldekoa eta Argiñena jauregiak. Zubero-Malats auzoetan, San Lorentzo eta San Martin baselizak. Narean, Goitiko Garaia horreoa. Udalerriko zubi zaharrak, gehienak ojibalak.

Aholkuak

Bedartzaundi eta Iluntzarren gora



joateko mendiko zapatak eroatea komenigarria da oso.

Jateko

Errekondo jatetxea (946279162), Zarrabenta taberna (946279004), Marianoren taberna (946279024).

para parkeaz gozau leikie bisitariak. Errota zaharra egoan lekuan urtegia sortu dabe. Ur bako erreka eta potzu arteko gunea, bada, atsedean hartzeko primerakoa da. Antaparak eta Lea ibaia zeharkatzen daben zubi piloak argi erakusten dabe urak ondo baldintzatu dauela aulestiarren bizimodua. Antxina burdinola mordoa egozan parajeotan. Errota eta zentral elektriko bihurtu zituen horreek beranduago. Egun, gehienak hondatuta dagoz, baina batzuk lehengoratu ditue, eta udalerriaren historia iraunarazoz.

Bedartzaundi eta Iluntzar

Urigunea ezagutu, Aulestiko auzoak ikusi eta oraindik izadian hara eta hona ibilteko sasoi onean dagozanak Iluntzarrera joan leitekez. Edo Bedartzaundira. Mendi samurrak dira biak, lasai igotekoak.

Iluntzarrera arteko bidea Narean hasi leikie. Leizarra baserri multzoa igaro, bide asfaltautik urten eta Atxabrin muinora joango dira hurrengo. Iluntzar gunea horren ondoan dago. Ordu-bete nahikoa da tontorra zapaltzeko. Buelako bidea Iru Ukitza muinoan barrura egitea aukeran daukie. Ineritzera abiatu, Merika auzora jaitsi eta Lekerikako Santiago ermitea pasauta oster be Nareara ailegaugauko dira.

Bedartzaundira erre-zago joan leiteke. Zubero-Malats aldean aldats gorako bideari ekin eta laster ikusiko dabe mendi puntea. Handik, Santa Eufemia baselizara doan ibilbidea egin leikie. Hatx artean indarrak barritu ostean, Markina ikusteko gogoz dagozanek, Larrutz eta Igotz baserriak atzean laga eta aldapan beheara jarraitu beharko dabe.

Herri txikia dalako edo, Aulestin ondo gorde ditue lehenagoko bizimoduaren oroigarriak: landa ingurunea, eraikuntza lan txukunak eta ohitura eta esaera zaharrak. Aulestin, adibidez, oraindik orain ez dago egunkari guztiak saltzen dituan dendarik. Deia eta Correo Zarrabentan erosi leitekez. Egunkaria eta Gara Marianorenean. Aulesti, beste alde batetik, herrialdean ingeles gehien entzuten dan herria dala esaten dabe. Izan be, bertako jente mordoa joan zan Australiara, eta uda partean bueltau ohi dira.

Iban Ocio | AULESTI

Erdiguneko eraikuntzak

Zesta punta eta esku pelota jokalar trebeen harrobi dira parajeok. Eraikin bikainen alkargune: torre, jauregi eta zubi. Lea ibaiak zeharkatzen dau. Motrollo, Iluntzar eta Bedartzaundi muinoek inguratu. Herriko tabernetan bapo bazkaldu leiteke, Marianoren tabernan batez be. Aulesti Bizkaian gitxi aitatzen dan herria da, baina egun pasa egiteko parebakoa: herrian barrena pasiaran jardun, mendian gora abiatu, jateko gozoak das-tatu, atsedean hartu...

Zazpirehun bizilaguneko udalerria da. Bertokoek nekazaritzan eta abeltzaintzan jardun dabe aspaldidanik. Azkenaldian, inguruko herrietako industria gu-neetara joaten dira beharrean gazteak. Aulestin, oster, landatar herrien xarma laster igarri leiteke. Erdiguneko pilotzen dira eraikuntza politenak. San Juan Bautista eliza adibidez. XVI. gizaldian kareharri harlandua erabili eben ototz gunea al-tzetako. Halandabe, eliza itxura barik, gotorlekuen antz handiagoa dauka.

Elizatik gertu ageri da Aulesti torrea. Horrek emon eutsan ize-na udalerriari. Pedro Ibañez de Aulestiak 1456an agindu eban babeslekuaren eraikuntza —horma batzuek metro biko zabalera daukie—. Harrezkero, Aulestiko ikur bihurtu da. Herriaren armari zaharra be horretan dago. Torre parean, barriz, Ibañez de Aldekoa jauregia. Eraikuntza apalagoa da. XVI. gizaldian eregi eben, gaurko plazara begira. Ate nagusian dauka Ibañez de Aldekoa familiaren gorazarreko armaria. Inguruotan, beste alde batetik, Argiñena jauregia topau leiteke. Fatxada

nagusia Erdi Aroko torre baten itxurakoa da, askotariko leiho eta ateak agertzen ditu, eta lehenagoko geziak botateko txoko berezia be badauka.

Urigunetik haratago dago Zuberoako San Lorentzo baseliza. Handik gertu, Malatseko San Martin ermitea —antxina be-deinkazinoak ur eta gatzez egiten zituen berton—. Horreek ototz gunek Zubero-Malats auzoetan ikusi leitekez. Narean, azkenik, sasoi bateko Goitiko Garaia horreoa. Uzta oparoa batzekotan, garia gordeteko erabilten eben.

Herriburuan, ganera, Anta-